# Bestelako Agintza eta Erabakiak
# Otras Disposiciones y Acuerdos


HEZKUNTZA ETA KULTURA-SAILA

HABEren Lehendakariak 1984.eko Urtarrilaren 2an emandako ebazpena. Euskaltegietako eta zerbitzu pedagogiko-didaktikoko irakasle eta gainerako lankideen ordezkariak Zuzendaritza-Batzorderako hautatzeko arauak diktatzen dituena. 59

NEKAZARITZA-SAILA

Nekazaritza-Sailaren 1983.eko Abenduaren 29ko AGINDUA. "idiprobak" delakoetan eskuhar dezaten abelgorrien osasunbideak egiteari buruz. 62

DEPARTAMENTO DE EDUCACION Y CULTURA

RESOLUCION del Presidente del HABE, de 2 de Enero de 1984, por la que se cita la normativa para la elección de los representantes de profesores de euskaltegis y resto del personal adscrito a los servicios pedagógico-didácticos de HABE, en el Patronato Rector de HABE. 59

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

ORDEN de 29 de Diciembre de 1983, del Departamento de Agricultura, sobre saneamiento del ganado bovino que participe en pruebas de bueyes "idiprobak". 62


# Iragarpenak
# Anuncios


DONOSTIAKO UDALA

Aipatzen den hirigintza-egitamuketarako egitasmoaren lehenengo ONARPENA. 63

AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

APROBACION inicial del proyecto de planeamiento urbanistico que se cita. 63


# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

**LEHENDAKARITZA-SAILA**

**19**

Abenduaren 27ko 287/1983 DEKRETOA, Metro-mailako Moldatutako Uhinezko Irratetxeentzako Baimenak emateko moduari buruz.

Eusko Jaurlaritzaren Abenduaren 14ko 138/1981 Dekretoko eztabaidaren gai ziren zenbait alderdiri buruz, eta horietatik moldatutako uhinezko irratetxeen uhin-sarritasunak eta irrada-indarrak banatzeko agintepidearen jabetasunari buruzkoa, dela eta Erresuma-Jaurlaritzak sartutako agintepidea izan nahiezko auzia, Konstituzio-Auzitegiaren 1982.eko Uztailaren 8ko Epaiaren bidez erabaki zen. Halaber, Epai horrek eta Goren-Auzitegi honek behin eta berriz emandakoek (Martxoaren 23ko 10/1982 eta Maiatzaren 24ko 26/1982 Epaiek), Autonomia-Elkarteak gai horretaz duen aginteeremua finkatu dute.

Lehen azaldutakoaren ondorioz eta Toki-Erakundeei bizkorra eta gaurkoa izan dadin adierazpide-sare bat eman beharraren aurrean, behar hori, hain zuzen, 1983.eko Abuztuan gertatu ziren euri-erauntsietan agerian jarrita, bidezko eritzi zaio gai horretazko arau berriak emateari, lehendik zeuden arauak, guztiak, indargabetuz.

**DEPARTAMENTO DE LA PRESIDENCIA**

**19**

DECRETO 287/1983, de 27 de Diciembre, de Procedimiento de Concesión de Emisoras de Radiodifusión en Ondas Métricas con Frecuencia Modulada.

La Sentencia del Tribunal Constitucional de 8 de Julio de 1982 resolvió el conflicto positivo de competencia planteado por el Gobierno Central en relación con diversos extremos controvertidos del Decreto del Gobierno Vasco n.º 138/1981, de 14 de Diciembre, y, entre ellos, el relativo a la titularidad de la competencia sobre atribución de frecuencias y potencias de las emisoras de radiodifusión de frecuencia modulada. Del mismo modo, la meritada Sentencia, así como una reiterada jurisprudencia del Alto Tribunal (Sentencias 10/1982, de 23 de Marzo, y 26/1982, de 24 de Mayo), han venido a determinar el ámbito competencial de la Comunidad Autónoma en la materia.

Como consecuencia de lo anteriormente expuesto y ante la conveniencia de dotar a las Instituciones Locales de un sistema ágil y moderno de comunicaciones, necesidad que se ha puesto de manifiesto recientemente en las pasadas lluvias torrenciales de Agosto de 1983, se ha estimado oportuno proceder a una nueva regulación general de la materia, derogando en su totalidad la regulación anterior.

Horren ondorioz, Lehendakaritza-Sailburuaren saloz eta Jaurlaritzak 1983.eko Abenduaren 27an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

*Lehenengo Atala.—Aginteplidea*

Eusko Jaurlaritzak emango ditu metro-mailako moldatutako uhinezko (FM) irratetxeak jartzeko eta horiek ihardun dezateneko baimenak, Dekreto honetan eta erabilgarri diren gainontzeko legeetan jarri daitezen modutan, metro-mailako moldatutako uhinezko irratetxeen uhin-sarritasunak eta irrada-indarrak banatzeari buruz Erresumari dagozkion ahalmenen kaltetan gabe.

*2garren Atala.—Egitamua*

Eusko Jaurlaritzak, bere aginte-eremuaren barruan eta Lehendakaritza-Sailburuaren saloz, Euskal Herrian moldatutako uhinezko irratetxeak jartzeko Egitamu bat onartuko du, hiri-mailako hedapena izan dezatenaren irizpideak batez ere erabiliz.

*3garren Atala.—Eske-egileak*

Herri-Erakundeek edo legezko herri nahiz norbanako-jabetzapeko izaikiek eskatu ahal izango dituzte moldatutako uhinezko irratetxeak jartzeko eta horien eraentza eta ustiaketarako baimenak.

*4garren Atala.—Norbanako-jabetzapeko Irratetxeen eske-egileak*

1. Baimenaren eske-egile izan daitezen gizabanako edo norbanako-jabetzapeko erakundeek, legez espainiar, ihardutzeko gaitasun osoaren jabe izatea, gizarte-adierazpideen alorreko ekintzetan aritzea baltzu-xede eukitzea eta Erresumaren Akurapen-Legeko 9. Atalean ohartemandakoetan sartuta ez egotea izango dituzte betebehar.

2. Eske-egilea akziokako baltzu gisako lege-nortasunduna bada, horren akzioak jabe-izendunak izango dira. Atzerritarrak edo, hala gertatuz gero, atzerrian bizi diren espainiarrak akzio horietaz jabetzeko, alde horretatik Erresumalegeek gizarte-adierazpideen jabe diren enpresei buruz agintzen dutena izango da araupide.

Bazkidea akziokako baltzu bat baldin bada, baltzu horrek ere Erresuma-legeek gizarte-adierazpideen jabe diren enpresentzat agintzen dutena bete beharko dute.

*5garren Atala.—Herri-Erakundeen Irratetxeen jaurpidea*

1. Herri-erakundeen irratsaioek gehinbat hezkuntza eta kultura-alorrekoak izan beharko dute.

2. Baimendu izan daitezen toki-mailako herri-erakundeek ezingo dute irratsaio horietakoren batentzako babes-emailerik onartu dirulaguntza ematen duen bazkuna, iraunkorrez, irratetxearen hiri berekoa bada baino. Zabalkundea, dirulaguntza ematen duen bazkunari buruz soilik izango da, merkataritzazko salgai edo baltzu-ikurrei buruz zabalkundea egiterik ez dagoela.

*6garren Atala.—Baimenak emateko lehentasunak*

1. Baimenak jasotzeko, herri-erakundeek izango dute lehentasuna, eta bigarrenik gizabanako edo norbanako-jabetzapeko izaikiak egongo dira.

2. Gizabanako edo norbanako-jabetzapeko izaikietatik, lehendabizi, kultura alorrekoei emango zaie lehentasuna.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Presidencia y previa deliberación y aprobación del Gobierno en su reunión del día 27 de Diciembre de 1983,

DISPONGO:

*Artículo 1.º—Competencia*

El Gobierno Vasco otorgará las concesiones para la instalación y el funcionamiento de emisoras de radiodifusión en ondas métricas con modulación de frecuencia, en las condiciones que se establecen en el presente Decreto y de más legislación aplicable, sin perjuicio de las facultades de atribución de frecuencias y potencias de las emisoras de radiodifusión de frecuencia modulada que corresponden al Estado.

*Artículo 2.º—Plan*

El Gobierno Vasco, en la esfera de sus competencias y a propuesta del Consejero de Presidencia, aprobará un Plan de instalación de las emisoras de radiodifusión con modulación de frecuencia del País Vasco, en el que se atenderá fundamentalmente a criterios de cobertura local.

*Artículo 3.º—Solicitantes*

Podrán solicitar concesiones para el establecimiento, gestión y explotación de emisoras con modulación de frecuencia las instituciones o entidades públicas o privadas legalmente constituidas.

*Artículo 4.º—Solicitantes de Emisoras privadas*

1. Las personas o entidades privadas solicitantes de concesión habrán de tener nacionalidad española, plena capacidad de obrar, constituir su objeto social el ejercicio de actividades de comunicación social y no estar incluidas en alguna de las circunstancias previstas en el art. 9 de la Ley de Contratos del Estado.

2. Si el solicitante es una persona jurídica en forma de sociedad anónima, las acciones serán nominativas. La transferencia de acciones a extranjeros o, en su caso, a españoles domiciliados en el extranjero se regirá por lo que establezca al respecto la legislación estatal sobre empresas titulares de medios de comunicación social.

Si la cualidad de socio recae en una sociedad por acciones, dicha sociedad estará sometida igualmente a lo que establezca, para el caso, la legislación estatal sobre empresas titulares de medios de comunicación social.

*Artículo 5.º—Régimen de Emisoras institucionales*

1. Los programas de emisoras institucionales serán preferentemente educativos y culturales.

2. Las entidades públicas locales concesionarias sólo podrán aceptar el patrocinio de alguno de sus programas si la firma subvencionadora dispone de establecimiento permanente en la población en que tenga su sede la emisora. La publicidad será de la firma subvencionadora sin que quepa hacer propaganda de productos o marcas comerciales.

*Artículo 6.º—Preferencias en la concesión*

1. Las instituciones públicas tendrán preferencia en el otorgamiento de las concesiones sobre las personas o entidades privadas.

2. En el caso de personas o entidades privadas tendrán preferencia las instituciones culturales, en primer lugar. En

Gainontzekoetatik, xede nagusi hezkuntza eta kultura-alorreko irratsaioak egitea izan dezatenei eta, bereziki, adierazte-hizkuntza, gehienbat euskera erabil dezatenei emango zaie lehentasuna.

*7garren Atala.—Eskabideen betebeharrak*

Bai herri-erakundeen eskeek, bai norbanako-jabetzapekoenek eta irabazte-xedezkoenek, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Norbanakoaren izena edo erakundearen baltzu-izena, hala badagokio eske-egilearen ordezkoarena, eta helbidea.

b) Irratetxea jarri nahi deneko hiria, hartuko duen irrada-eremua eta eskatzen den irrada-indarra.

c) Jartzeko teknika-egitasmoa, indarrean dagoen araupidean teknika-aldetik eskatzen diren baldintzen arauera idatzita.

d) Lehen irabazte-xedezko edo moldatutako uhinezko irratetxeren baten baimendun izandakoek, lehengo baimenari zerizkion betebeharrak bete izana egiaztatu beharko dute.

e) Irratetxeak izango duen ihardunari buruzko txosten zabal bat.

f) Eske-egilea lege-nortasunduna baldin bada, eratzezko eskribau-agiriaren egiaztatutako eta sendetsitako aldakia.

g) Egitarauan dauden euskerazko eta gaztelaniazko irratsaio-orduen antzematezko zehaztapena.

h) Eske-egileari bere eskubidea egiaztatzeko baliagarri izan dakion beste ezein agiri.

*8garren Atala.—Jartzearen baldintzak*

Indarrean dauden teknika aldetikako baldintzak betetzeaz gainera, irratetxeek enerjia sortarazteko eskuarteak izan beharko dituzte, elektrindar-sareak, berez, hirurogeita bi ordutakoan, iraun dezaneko bide.

*9garren Atala.—Baimenak emateko modua*

1. Herri-erakundepeko nahiz irabazte-xedezko moldatutako uhinezko (FM-ko) irratetxeentzako eskeak Gizarte-Adierazpideetarako Artezkaritzari egin beharko zaizkio, Dekreto hau indarrean jarri eta berrogei eguneko epearen barruan. Epe hori bukatu ondoren, ihardutze-sail horrek aurkeztutako eskeak, guztiak, hiru hilabeteko epearen barruan ebatziko ditu, onarpenaren, ukapenaren edo hala badagokio teknika-egitasmoaren aldatekaren jakinarazpena eginez.

2. Behin-behingo izendapenaren edo teknika-egitasmoa aldatzeko saloaren jakinarazpena jaso ondoren, behin-behingo baimendunak sei hilabete izango ditu dagozkion lanak egiteko eta antolapidetzak jartzeko. Epe hori antolapidetza bukatu gabe igarotzen bada, behin-behingo baimendunak baimena utzi egiten duela ulertuko da.

3. Behin-behingo izendapenak teknika-egitasmoa aldatzeko saloa daramanean, baimendunak bere onespena edo gaitzespena adierazi beharko du hilabeteko epearen barruan. Aldakuntza ez onartzea gertatuz gero, horrela sortutako toki hutsa beste baimen-emate baterako gai izango da. Hilabeteko epe hori aurreko idazpuruan esandako lanak egiteko eta antolapidetzetarako izendatutako sei hilabeteen barruan egongo da.

relación a las demás, tendrán preferencia aquellas que tengan como finalidad predominante la difusión de programas educativos y culturales y, en particular, las que vayan a utilizar preferentemente el euskara como lengua de comunicación.

*Artículo 7.º—Requisitos de las solicitudes*

Las solicitudes, tanto para emisoras institucionales como para emisoras privadas, comerciales, habrán de reunir los siguientes requisitos:

a) Nombre o razón social de la entidad o de la persona natural o, si procede, del representante legal y dirección del solicitante.

b) Localidad donde se pretende instalar la emisora, área de cobertura y potencia solicitada.

c) Proyecto técnico de instalación, redactado de acuerdo con las condiciones de orden técnico que, al respecto, vienen establecidas en la normativa vigente.

d) Los solicitantes que hayan sido concesionarios con anterioridad de alguna emisora comercial en modulación de frecuencia, habrán de acreditar que están al corriente de las obligaciones resultantes de la concesión anterior.

e) Memoria amplia sobre las actividades que desarrollará la emisora.

f) En caso de que el solicitante sea persona jurídica, copia autorizada y registrada de la escritura pública de constitución.

g) Determinación estimativa de las horas de programación en euskara y castellano.

h) Cualquier otra documentación que pueda servir al solicitante para acreditar su derecho.

*Artículo 8.º—Requisitos de instalación*

Además de las condiciones de orden técnico vigentes, las emisoras deberán estar provistas de medios propios de generación de energía que les permitan un funcionamiento autónomo de la red de energía eléctrica, al menos durante sesenta y dos horas.

*Artículo 9.º—Procedimiento de adjudicación*

1. Las solicitudes de concesión de emisoras de FM, tanto institucionales como comerciales, habrán de ser dirigidas a la Dirección de Medios de Comunicación Social, en un plazo de cuarenta días a partir de la entrada en vigor del presente Decreto. Finalizado el plazo, dicho órgano resolverá en el plazo de tres meses la totalidad de las solicitudes, notificando la aprobación, denegación o, en su caso, la modificación del proyecto técnico.

2. Notificada la adjudicación provisional o la propuesta de modificación del proyecto técnico, el adjudicatario provisional dispondrá de seis meses para realizar las obras materiales y de instalación correspondientes. Transcurrido este plazo sin que haya finalizado la instalación, se entenderá que el adjudicatario provisional renuncia a la concesión.

3. Cuando la adjudicación provisional impusiera propuesta de modificación al proyecto técnico, el adjudicatario deberá manifestar su conformidad o disconformidad en el plazo de un mes. Caso de no aceptar la modificación, la vacante producida quedará disponible para una nueva concesión. El plazo de un mes estará incluido dentro de los seis meses asignados a la ejecución de las obras e instalaciones indicadas en el epígrafe anterior.

*10garren Atala*

Ezein norbanako edo lege-nortasundunek ezingo du metro-mailako moldatutako uhinezko herri-erakundeko edo norbanako-jabetzapeko irratetxe bakar bat baino gehiagotan bazkide gisa partaide izatea, Autonomia-Elkartean.

*11garren Atala.—Irrati-igorpena*

Antolapidetza jartzea bukatu ondoren, baimendunek ezingo dute zerbitzu gaitasundunek hura ikusi eta ontzat eman arte irrati-igorpenezko saiorik egin.

Azkeneko baieztapen-agiriak emango du behin-betiko baimena. Irratetxeak ezingo du horren argitalpena egin ondoren baino askatasunez ihardun, metro-mailako moldatutako uhinezko irratientzako ortariko arauei eta Dekreto honi atxikiz.

*12garren Atala.—Baimenen iraunaldia*

Baimenak hamar urtetarako emango dira, eta baimendunak eskatuta, behin eta berriz hamar urteko aldietarako berritu ahal izango dira.

Luzapena Gizarte-Adierazpideetarako Artezkaritzako Buruak emango du.

*13garren Atala.—Norbanako-jabetzapeko irratetxeen jabe-aldakuntza*

Norbanako-jabetzapeko irratetxeentzako baimenak jabez aldatu ahal izango dira, jabe berriak Dekreto honetako 4. Atalean aipatzen diren legezko baldintzak bete ditzanaren baldintzapean eta Gizarte-Adierazpideetarako Artezkaritzak bere onarpena eman ondoren.

*14garren Atala.—Baimenaren jaurpidea*

Baimenak honako eginbehar hauek dakarzkio baimendunari:

a) Indarreango legeei eta irrati-alorreko berarizkoei men egitea.

b) Baimenaren ustiaketa berenez egitea, 13. atalean norbanako-jabetzapeko irratetxeentzat jarritakoaren kaltetan gabe.

c) Baimenaren gai izandako irrada-indar, uhin-sarritasun eta teknikazko betebeharrei buruzkoetan baimeneko teknika--zernolakoei eustea.

Nazioarteko hitzarmenak egiteratzeko agian egin daitezen uhin-sarritasunaren eta irrada-indarraren birregokitzeen edo teknika-zernolakoen aldakuntzen menpe gelditukodira baimen guztiak.

d) Urteko azkenengo hiru hilabetekoan zehar eta Abenduaren 15a baino lehen, baimendunek bere diruegitamuak eta hurrengo urterako irratsaio-egitaraua aurkeztu beharko dizkiote Gizarte-Adierazpideetarako Artezkaritzari, honek onar ditzan. Eskabidean edo hala badagokio baimenaren onartzezko erabakian ohartemandakoarekin bat datozenean, onarpena izango dute.

Bide hori egiten ez bada, Arduralaritzak, doakionari entzun ondoren, eskubidea izango du baimena hausteraren saloa jaurlaritzari egiteko.

e) Herri-erakundepeko irratetxeentzat gutxienez bi ordukoa eta irabazte-xedezkoentzat gutxienez hamabi ordukoa izango den irratsaio-aldia, baimendunak egindako eskeari erantzunaz dagokion ihardutze-sailak ontzat emandakoaren arauera.

*Artículo 10*

Ninguna persona física o jurídica privada podrá participar en condición de socio en más de una emisora privada en ondas métricas con modulación de frecuencia, en la Comunidad Autónoma.

*Artículo 11.—Emisión Pública*

Una vez finalizada la instalación, los adjudicatarios no podrán efectuar pruebas de emisión pública hasta que aquélla no haya sido inspeccionada y aprobada por los servicios competentes.

El acta de conformidad final determinará la adjudicación definitiva de la concesión. Unicamente después de esta publicación la emisora podrá funcionar libremente, dentro de las normas generales de radiodifusión sonora de ondas métricas con modulación de frecuencia y del presente Decreto.

*Artículo 12.—Plazo de concesión*

Las concesiones se otorgarán por diez años y podrán ser renovadas por sucesivos períodos de diez años a petición de los concesionarios.

La concesión de la prórroga la otorgará el titular de la Dirección de Medios de Comunicación Social.

*Artículo 13.—Transferencia de emisoras privadas*

Las concesiones correspondientes a emisoras privadas serán transferibles siempre que el adquirente reúna las condiciones legales a que se refiere el artículo 4.º del presente Decreto y previa aprobación de la Dirección de Medios de Comunicación Social.

*Artículo 14.—Régimen de la concesión*

La concesión impone al concesionario las siguientes obligaciones:

a) Acatamiento de la legislación vigente y de la específica en materia de radiodifusión.

b) La explotación directa de la concesión, sin perjuicio de la establecida en el artículo 13 para las emisoras privadas.

c) El mantenimiento de las condiciones técnicas de la concesión en lo relativo a la potencia, frecuencia y requisitos técnicos autorizados.

Toda concesión ha de quedar subordinada a los posibles reajustes de frecuencias y potencias o a las modificaciones de las características de orden técnico en cumplimiento de compromisos internacionales.

d) En el transcurso del último trimestre del año, y antes del 15 de Diciembre, las concesionarias deberán presentar en la Dirección de Medios de Comunicación Social, para su aprobación, los presupuestos y el esquema de programas previsto para el ejercicio siguiente. La aprobación corresponderá cuando se adecuen a lo previsto en la solicitud o, en su caso, a la resolución aprobatoria de la concesión.

La omisión de este trámite facultará a la Administración, a que, previa audiencia al interesado, proponga al Gobierno la rescisión de la concesión.

e) Un horario de emisión, que para las emisoras institucionales no podrá ser inferior a dos horas diarias y para las comerciales de doce horas diarias, de acuerdo con lo aprobado por el órgano competente en respuesta a la solicitud correspondiente del concesionario.

f) Eusko Jaurlaritzak bidalitako adierazpen, ohar edo gaztigu ofizialak dohan eta nodikakoa adieraziz zabaltzea.

Hestualdien, toki-mailako edo gehienei daragien hondamendiaren edo antzerakoen ondorioz gertatutako ohi ez bezelako egoeretan, baimendunak Eusko Jaurlaritzaren zerbitzura jarri behar ditu bere teknika-eskuarteak eta beharrezko izan dadin laguntza eta lana. Horretarako zerbitzu horrek irratsaio-orduak aldatzea eta hondamendiaren ondorioen berri emateko edo horiek arintzeko, irratsaioetan beharrezko izan dadin nolanahiko eskuhartzea egin ahal izango du.

g) Irratetxeko Artezkariaren eta horrek tokia uztea, kanpoan edo gaixorik egotea gertatuz gerorako ordezkoaren izendapenak aurrez Gizarte-Adierazpideetarako Artezkaritzari ezagutaraztea.

h) Baimenduna Akziokako Baltzu bat izan dadinean, galera-irabazien xehetasun eta guztizko kontu-garbitasuna, irabazien banaketa eta ekonomia-urte bakoitzari buruzko Argipide-Txostena aurkeztu beharko ditu, ekonomia-urtearen bukaeran hasi eta lau hilabeteko epearen barruan.

Norbanakoa baldin bada, epe berean, enpresaren egoera, ekonomia-urtearen emaitza eta argipide-txostena bidaliko ditu.

Herri-alorreko bazkuna izanez gero, urteoro aurkeztu beharreko agiri-sortak ekonomia-egoera eta irratetxearen ustiaketari eta eusteari darizkion diru-eskuraketa eta xahupenen kontua izan beharko ditu berebaitan.

i) Zerbitzua, etengabe, jarritako ordu eta modutan egingo denaren bermea; ezinbestekoren bat gertatu ezik zerbitzua ezingo da ihaldutze-sail gaitasundunaren baimenik gabe eten.

*15garren Atala.—Baimenaren sariak eta sari-taulak*

1. Baimendunek, irrati-igaropenezko saioak egin baino lehen, Dekretoz finkatuko den baimen-sari bat ordaindu beharko dute. Halaber, Dekretoz finkatuko da baimenaren luzapenagatikako ordainsaria.

2. Atal honak aipatzen dituen zenbatekoak ez ordaintzeak, doakionari entzun ondoren, baimena haustea ekarri ahal izango du.

*16garren Atala.—Baimen-haustea*

Dekreto honetan jarritako ezein eskakizunen bat ez betetzea izan daiteke ihardutze-sail gaitasundunak baimena hautsi dezaneko arrazoi.

*17garren Atala.—Zaingoa*

Jaurlaritzak, erabilgarri diren arauak eta bereziki Dekreto honetan jarritakoak eta bai baimenaren eskean adierazitako helburuak edo, hala badagokio, baimena onartzezko erabakian jarritakoak benetan betetzearen zaingo egingo du.

*18garren Atala*

Ihardutze-sail gaitasundunak ezein legezkontrako irratetxe isilarazteko eta horren antolapidetzak geldiarazteko behar daitezen neurri guztiak hartuko ditu.

## LEHENENGO ERABAKI GEHIGARRIA

14.f) Ataleko bigarren zatian ohartemandakoetarako, Eusko Jaurlaritzak, hestualdi edo hondamendi-egoeretan, Autonomia-Elkarteko adierazpide-sarea, eginkortasunez ano-

f) Difusión gratuita, citando la procedencia de comunicados, notas o avisos de carácter oficial que le sean remitidos por el Gobierno Vasco.

En circunstancias excepcionales, producidas por situaciones de emergencia, catástrofes locales o generalizadas, o situaciones similares, el concesionario deberá prestar sus medios técnicos y la ayuda y colaboración necesarias al servicio competente del Gobierno Vasco. A tal efecto dicho servicio podrá modificar el horario de programación y realizar cualquier tipo de intervención en la misma, necesaria para informar o paliar los efectos de la catástrofe.

g) Notificación previa a la Dirección de Medios de Comunicación Social del nombramiento del Director de la emisora y del sustituto en caso de vacante, ausencia o enfermedad.

h) Cuando el concesionario fuera una Sociedad Anónima, deberá presentar el balance con la cuenta de pérdidas y ganancias, distribución de beneficios y Memoria explicativa de cada ejercicio, en un plazo de cuatro meses a contar desde el cierre de éste.

Si fuera un particular, remitirá en igual plazo un informe que refleje la situación de la empresa, resultado del ejercicio y Memoria explicativa.

Si se tratase de asociaciones de carácter civil, la documentación anual que habrán de tramitar contendrá la situación y la cuenta de ingresos y gastos derivados de la explotación y mantenimiento de la emisora.

i) Garantizar la continuada prestación del servicio con los horarios y condiciones establecidas, que no podrán interrumpirse, salvo casos de fuerza mayor, sin la autorización del órgano competente.

*Artículo 15.—Cuotas y tarifas de concesión*

1. Los adjudicatarios deberán abonar, con carácter previo a las pruebas de emisión pública, una cuota de concesión que se fijará mediante Decreto. Igualmente se fijará mediante Decreto la cantidad que haya que abonar por la prórroga de la concesión.

2. El impago de las cantidades a que se refiere el presente artículo podrá suponer, previa audiencia del interesado, la rescisión de la concesión.

*Artículo 16.—Rescisión*

El incumplimiento de cualquiera de las condiciones exigidas en el presente Decreto podrá determinar la rescisión de la concesión por el órgano competente.

*Artículo 17.—Inspección*

El Gobierno velará por el cumplimiento de la normativa aplicable y, en particular, por la establecida en el presente Decreto y por el cumplimiento efectivo de los objetivos señalados en la solicitud o, en su caso, en la resolución que apruebe la concesión.

*Artículo 18*

El órgano competente adoptará las medidas necesarias para interrumpir toda emisora clandestina y clausurar los equipos correspondientes.

## DISPOSICION ADICIONAL PRIMERA

A efectos de lo previsto en el artículo 14.f), apartado segundo, el Gobierno Vasco se dotará de los medios de comunicación y control necesarios que permitan, en situacio-

lakidetzeko eta bere zaingo egiteko, eta herritarrei moldatutako uhinezko (FM-ko) irratetxe hauen bitartez adierazpenak igortzeko beharrezko izan daitezen adierazpideak eta artapideak izango ditu.

BIGARREN ERABAKI GEHIGARRIA

1. Bere garaian aurkeztuta, gaur baimendun direnek antolapidetzaren teknika-egitasmoa bidali beharko diote Gizarte-Adierazpideetarako Artezkaritzari, honek ezagutu dezan. Hala gertatuz gero, luzapena Dekreto honetan jarritako edo, hala gertatuz gero, orokorki jarri dadin jaurpidepean geldituko da.

2. Hala gertatuz gero, baimen horien luzapenek 15.1 Atalak aipatzen dituen luzapen-sariak ordaindu eta gainontzeko baldintzak ere bete beharko dute.

Nolanahi ere, 8. Atalean ohartemandakoari egokitu beharko diote bere antolapidetza urtebeteko epearen barruan.

3. Urteko sariak, Dekreto hau indarrean sartzeaz geroztik ordainduko dira, Autonomia-Elkarteko Diruzaingo Nagusian.

ALDIBATERAKO ERABAKIA

Dekreto honen 15. Atalak dioen ondoriotarako, baimen-saria, hasieran, egindako xahupen osoaren ehuneko laukoa izango da.

AZKEN ERABAKIAK

*Lehenengoa.*—Abenduaren 14ko 138/1981 Dekretoaren babespean moldatutako uhinezko irratetxearen baimen-eskea egin zutenak eske berria egin beharrekotik iare egongo dira; hori, 9.1 atalak aipatzen duen 40 eguneko epean, Dekreto honi egokitzeko, bere agiri-sorta, beti ere eta bereziki Dekreto honetako 7. Ataleko c) eta g) zatietan esandako eskakizunei buruzkoa, osatu dezatenaren kaltetan gabe.

Aurreko zatian esandakoa betetzeke, epe hori igarotzen bada, bere baimen-eskea utzi egiten duela ulertuko da.

*Bigarrena.*—Moldatutako uhinezko (FM-ko) agizko irratetxeak jartzeko eta ustiatzeko baimenek ez dute musika-girorako edo beste edozertarako biderik ematen; horietarako berarizko araupidetza eta baimena beharko dira.

*Hirugarrena.*—Dekreto honetan jarritakoa ez da Euskal Irrati-Telebistako Izaikiak sortu ditzan irratetxeekin erabilgarri izango.

*Laugarrena.*—Lehendakaritza-Sailburuari Dekreto hau egiteratzeko, osabideratzeko eta erabiltzeko behar daitezen arauak emateko eskua ematen zaio.

*Bosgarrena.*—Abenduaren 14ko 138/1981 Dekretoa indargabetuta gelditzen da.

*Seigarrena.*—Dekreto hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamonean sartuko da indarrean.

Gasteizen, mila bederatzirehun eta larogeita hirugarreneko Abenduak 27.

Lehendakaria,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Lehendakaritza-Sailburua,
XABIER CAÑO MORENO.

nes de emergencia o catástrofe, la transmisión de comunicados a los ciudadanos a través de estas emisoras de F.M. dotando de eficacia la coordinación y control del sistema de comunicaciones de la Comunidad Autónoma.

DISPOSICION ADICIONAL SEGUNDA

1. Los concesionarios actuales deberán remitir a la Dirección de Medios de Comunicación Social el Proyecto técnico de instalación, anticipado en su día, para su conocimiento. La prórroga, en su caso, quedará sometida al régimen del presente Decreto o al que, en su caso, se establezca con carácter general.

2. La renovación, en su caso, de dichas concesiones estará sometida también a la cuota de prórroga a que se refiere el artículo 15.1 y al cumplimiento de las demás condiciones. En todo caso, en el plazo de un año deberán adecuar su instalación a lo prevenido en el artículo 8.º.

3. Las tarifas anuales se abonarán, a partir de la fecha de entrada en vigor del presente Decreto, en la Tesorería General de la Comunidad Autónoma.

DISPOSICION TRANSITORIA

A efectos de lo dispuesto en el artículo 15 del presente Decreto, el canon o cuota de concesión se fija inicialmente en el cuatro por ciento del total de la inversión realizada.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*—Quienes hubiesen solicitado una concesión de emisora en modulación de frecuencia, al amparo del Decreto 138/1981, de 14 de Diciembre, estarán exentos de hacer una nueva solicitud, sin perjuicio de que, en el plazo de 40 días a que se refiere el artículo 9.1, completen la documentación, para adecuarse al presente Decreto, con mención expresa, en todo caso, a los requisitos a que se refieren los apartados c) y g) del artículo 7.º del presente Decreto.

Si transcurrido dicho plazo no cumplimentaran lo establecido en el apartado anterior se entenderá que desisten en su solicitud.

*Segunda.*—Las concesiones para la instalación y explotación de emisoras de FM de carácter convencional no ampara su extensión al ambiente musical o a cualquier otra que pueda aplicarse, que exigirá una reglamentación y autorización específicas.

*Tercera.*—Lo dispuesto en el presente Decreto no será de aplicación para aquellas emisoras que sean creadas por el Ente Vasco de Radio Televisión.

*Cuarta.*—Se faculta al Consejero de Presidencia para dictar las normas necesarias para la ejecución, desarrollo y aplicación de este Decreto.

*Quinta.*—Queda derogado el Decreto 138/1981, de 14 de Diciembre.

*Sexta.*—El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de Diciembre de mil novecientos ochenta y tres.

El Presidente,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

El Consejero de Presidencia,
JAVIER CAÑO MORENO.